

**ESKRITURA SANTUA ELEIZAREN BIZITZAN
LIBURU SANTUEN ITZULPENAK LITURGIARAKO
BILBO ELEIZBARRUTIAN
VATIKANOKO II. KONTZILIO OSTEAN**

Obertura modura

Eskritura Santua Eleizaren ezinbesteko osagaia dogu. Jesu Kristoren Eleiza ezin da ulertu Eskritura Santua barik. Izan bere, Eleizea fede alkartea da, Jainkoaren Hitza aldarrikatzen, ospatzen eta bizitzen dauan alkartea. Batzarre liturgikoetan, eta berariaz Sakramentuen ospakizunetan Liburu Santuak irakurtzea eta hausnartzea, Eleizaren fede bizitzaren eta maitasun egintzaren derrigorrezko osagaia da. Eukaristiaren ospakizunak Jainkoaren Hitzaren ogian eta Kristoren Gorputz eta Odol dan ogian parte hartzea eskatzen dau. Kristinau batek ezin dau Eleizaren fede arnasarik bereganatu, Jainkoak inspiraturiko Liburu Santuakaz hartu-emonean ez badago. Eta ezin da Eleizaren fede bizitzarik barriztatu Eskritura Santua irakurri, hausnartu eta otoitz bihurtu barik. Honetara Jainko gure Aitagazko alkarrizketa burutzen dogu, Berari entzunez eta geure otoitzaren bidez erantzunez.

1. Jainkoaren Hitza biderako argi

“Kriseilu da zure hitza nire pausuentzat, argi nire biderako” (Sal 119,105).

Jainkoak, bere ontasun eta jakituriaz, bere burua agertu deusku eta bere nahiaren misterioa ezagutu daigula gura dau (ik Ef 1,9). Jaunak berba egiten deuskunean Berbera azaltzen

jaku, bere izatearen barri emoten deusku. Izan bere, Jaunaren “berbetea”, bere pertsonaren adierazpena da, eta Berak ahalbideratu eta bultzatzen dau persona mailako gure Beragazko alkarrizketa. Horixe da Jainkoaren beheratzea, guganatztea, egokitzea, eleizgurasoen ahotan eta idatzietan sarri aita-tzen dan “synkatábasis” ospetsua. Horretarako, gizakien bidez eta giza erara egin deusku berba Eskritura Santuan. Beti-beti egokitu izan da gizon-emakumeon ulermenera eta izaerara. Egokitu eta beheratu egin da, Haren agerpena ikusiz Bera goratu eta eskertu dagigun, bere maitasunezko “berba-ekintzari” behar dan moduan erantzun ahal izan deiogun. Eta horregaitik, Eskritura Santuaren interpreteak, Harek jakinazo gura izan deuskuna ezagutu ahal izateko, arduraz aztertu behar ditu idazle santuek (“hagiografoek”) egiaz adierazo nahi ebena, eta euron hitzez Jainkoak agertu gura ebana. *Kristo dogu errebelazino guztiaren bitarteko eta osotasuna*. San Joanen araberako ebanjelioan esaten jaku: “Eta Berbea haragi (gizon) egin zan eta geure artean jarri eban bizilekua” (Jn 1,14). Jesu Kristok, gizon egindako Berbeak, “gizon-emakumeengana bialdutako gizasemeak”, Jainkoaren berbak esaten ditu, eta Aitak gomen-datu eutson salbazino-egintza burutzen dau. Jesu Kristo “gu gizonokaitik eta gu salbatzeko jatsi zan zerutik”. Jainkoak gizon eginez, geure artean hazurmaminduz, egin deusku berba. Jesu Kristogan esan jaku Jainkoaren Berba betea, baina “hara-gitua”, geure izaerari egokitua. Holan, Jainkoak komunikazino salbatzailea izan dau gizon-emakumeokaz. Horretara, Jesu Kristok, bere guztizko presentziaz eta agerpen pertsonalaz, bere hitzez eta egintzez, eta batez ere bere heriotzaz, hilen artetiko biztuera aintzatsuz eta egiaren Espiritua bialduz, bere betera eroaten dau errebelazinoa eta jainkozko lekukotasunez berresten dau Jainkoa gugaz dagoala. *Eskritura Santua ulertze-ko ezinbestezko giltza dogu, bada, Jesu Kristo ezagutzea*. Izan bere, Eskritura Santuko hitz guztien bidez, Jainkoak hitz bakarra esaten dau: bere Hitza, “Berboa”, eta beronengan esaten

da oso-osorik Jainkoa. Eleizeak badaki, ondotxu jakin be, Kristo Eskritura Santuetan bizi dana. Horregaitik, eleizeak benerazino handia izan deutso beti Eskritura Santuari, Jaunaren Gorputzari izan deutson moduan.

Jesu Kristo bera dogu “egia, bidea eta bizitza” eta Beraren argitan emongo doguz kristau-bizitzan geure pausu guztiak.

2. Jainkoaren Hitza Eleizaren bizitzan

Kriseilu eta argi dogun Jaunaren hitza dogu arnas eta bizi. *Hitz hori eleizan haragitzen da eta eleizan bizi da.* Eleiza Jainkoaren hitzaren menpe dago guzti-guztian. Hitzak sortzen dau eleiza, berak jasotzen eta haziazoten, berak barritzen, garbitzen eta epaitzen. Jainkoaren hitza eleizaren ministeritzan agertzen da eta eleizan jarduten dau. *Kontzilioak dinosku: “Liburu Santuetan, zeruetan dagoan Aitak bere seme-alaben bidera urteten dau maitekiro eta eurakaz hitz egiten dau; eta hain handia da Jainkoaren hitzaren ahala eta indarra ze, Eleizaren euskarri eta kemen be bada, fedearen sendotasun bere seme-alabentzat, arimaren janari, bizitza espiritualaren iturri garden eta betiereko” (DV 21).* *Eleiza ez da beragandik bizi, Ebanjeliotik baino, eta Ebanjelioan aurkitzen dau barrero beti bere biderako orientabide barria.* Eta Liburu Santuak ez ezagutzea Kristo bera ez ezagutzea danez, beharrezko eta ezinbestekoa da Eskritura Santuak etxekotzat hartzea, Kristo Jesusen ezagutzearen bikaintasuna eskuratzeko. Horregaitik, Eleizak dei bizia egiten deutse fededun guztiei, sarri-sarri irakurri dagiezan Liburu Santuak. Begira Kontzilioak dinoana: “Horregaitik, eleizgizon guztiek, batez ere Kristoren abadeek eta lege onez hitzaren ministerioan jarduten daben gainontze-koek, esaterako, diakonoek eta katekistek, sarri-sarri irakurri eta arretaz ikasi behar dabe Eskritura Santua, horreetako inor “barruan hitzaren entzule ez, eta kanpoan predikari ezerez” bihurtu ez daiten” (DV 25). “Era berean, Sinodo santuak biziro

gomendatzen deutse fededun guztiei, batez ere erlijiosoei, sarrri-sarri irakurri dagiela Eskritura Santua, “Kristo Jesus ezagutzearen dohai parebakoa” (Flp 3,8) lortu dagien, “Eskritura ez ezagutzea Kristo bera ez ezagutzea da eta” (DV 25). *Hitzaren ministerioak esparru zabala hartzen dau*: pastoraltza predikazinoa, katekesia, kristau instrukzinoa eta, berariaz, homilia. Eta guzti horrek Eskritura Santuan aurkitzen dau bere elikagai eta janaririk behinena. Abadegaiek ere, artzain on izatera heltzeko, “Maisu, Abade eta Artzain Jesu Kristo Jaunaren antzera” (OT 4), “Kristo bilatu behar dabe Jainkoaren Hitzaren gogoeta zintzoan” (OT 8). Eta eskaera berbera zuzentzen jake kristau-bokazinoa bizitza kontsagraduan bizi dabenei ere. “Izan begie egunero esku artean Eskritura Santua, liburu santuak irakurriz eta eurretaz gogoeta eginez, ‘Jauna ezagutzearen dohai paregabea’ (Flp 3.8) lortu dagien” (PC 6). Teologiak ere, Eleizaren fedetik eta Eleizaren misinoaren zerbitzura dagoan ezkerro, bideratu egin behar ditu fededunak Kristoren mezuaren sakonagoko ulermenera. Zeregin handia eta ezinbestezkoa dabe fededunek Liburu Santuen balio parebakoa aintzat hartu eta euren onarpenean hazi daitezcan. *Vatikano II. Kontzilio Ekumenikoak bultzada handia* emon deusku fededun eleiztarrok Jainkoaren Hitza baloratu eta estimatu daigun. *Eta Aita Santuek ere* barriztatze frutuak emotea gura bada, garrantzi handikotzat jo dabe Eskritura Santuaren *itsaso* zabal eta sakonean murgiltzea. *Joan Paulo II.a Aita Santuak dinosku*: “Eskritura Santuak dagokion ohorea lortu dau Eleizaren otoitz publikoan. Bai pertsonak eta bai alkarteek sarritan eta kopuru handian jotzen dabe Eskritura Santura” [...] Jokera hori sendotu eta sakondu beharra dago ere, familietan Biblia zabalduz. Beharrezko da, berariaz, Hitza entzutea alkargune bizi bihurtzea, antxinako eta betiko balioa dauan “Lectio Divina”ren tradizioan, zeinetan ahalbidetzen dan testu biblikoan aurkitzea existentzia interpelatzan, orientatzen eta modelatzen dauan Hitz bizia” (NMI 39). *Eta Benedikto XVI.a Aita Santuak*: “Elei-

zak beti barriztatu behar dau eta gaztetu, eta Jainkoaren Hitza, sekula zahartzen eta agortzen ez dana da helburu hori lortzeko bitarteko pribilegiatua” (Audientzia Orokorra, 2007-04-25ean).

3. Eskritura Santua liturgian

Kontzilioak Eskritura Santua irakurtzeko bultzada emonez eta Jainkoagaz bat egiteko tresna pribilegiatua dala autortuz batera, aparteko ardura bizkortu da kristinau fededunak errez eta artez aurkitu daitezcan Liburu Santuakaz. *Liturgiaren gune sagradua da esparru pribilegiatua, berebizikoa, horretarako era bizi eta eraginkorra*. Dударик txikienik barik autortu behar dogu Liturgia izan dala eta Liturgia dala, kristinau-herriaren gehiengoarentzat, Bibliara gerturatzeko bide garrantzitsuena. Horixe dino Benedikto XVI.a Aita Santuak: “Jainkoaren hitza irakurtzeko eta entzuteko berebiziko lekua (gunea) liturgia da. Bertan eguneratzen dogu Hitza geure bizitzan eta bertoratu egiten dogu geure artean” (Audientzia Orokorra, 2007-11-07an). *Jainkoaren Berba idatziak aparteko oihartzuna sortzen dau Profeten, Ebanjelarien eta Apostoluen berbak aldarrikatzen diranean Liturgian, eta berariaz Eukaristiaren ospakizunetan*. Liturgi ospakizuna Hitzaren adierazpen etenbako, bete eta eraginkor bihurtzen da. Horregaitik, “zenbat eta sakonago ulertzen dan ospakizun liturgikoa, hainbat bikainagoa da Jainkoaren Hitzaren estimazioa, eta batagaitik autortzen dana besteagaitik (ere) autortu daiteke, bitzuek gogoratzen dabelako Kristoren misterioa eta betikotu egiten dabe bakotxak beraren erara” (Mezako Irakurgaiak liburuaren sarreran). Vatikanoko II. Kontzilioak agindu eban: “zabaldu beitez gehiago Bibliako ondasunak” Jainkoaren Hitzaren mahaia oparoago prestatzearren fededunentzat (SC 51). Kontzilioaren agindu hau Kontzilio osteko liturgia erabarritze eta erreformak zehaztu eta gauzatu eban. Horretara, Mezako eta Orduen Liturgiako irakurgai-sailetan sartu ziran derrigorrezko eta aukeraz-

ko irakurgaiak nabarmen gehituz. Jokaera horregaz lortu zan kristau-herriak entzun ahal izatea Liturgian Liburu Santuen pasarterik esanguratsuenak, hiru urteko zikloan (domeketako irakurgaiak) eta urte bikoan (astegunetarako irakurgaiak) gorputz hartuz. *Kontzilioko dekretuen eraginez, Jainko Gurtzaren Kongregazioak irakurgai-liburu barriak eratu zituan.* Eta mundu osoko gotzainek herri-hizkuntzetara itzultzeko ardua leporatu eben, ze herri-hizkuntzetan ospatzen dau eleizak liturgia eta herri-hizkuntzetan adierazten fedea.


4. Liturgiarako gure itzulpena

Kontzilio ostean gure artean Liturgian erabili izan doguzan bertsinoak aitatu eta aztertuko dodaz, labur baino ez bada bere.

4.1. *Onaindia-Kerexetaren “Eguneroko Meza” (Bilbao 1963)*

Hasieran guk, Kontzilio ostean, Kerexetak argitaraturiko Meza Liburua “Eguneroko MEZA” (1963) erabili genduan. Don Karmelo Etxenagusiak idatzi eban artikulu bat “Kerexeta, Eleiz Idazle” (ez dauka datarik), eta han “Eguneroko Meza” liburuaren inguruan esaten ziran batzuk hemen jasotzea onuragarri dalakoan, hemen ipiniko dodaz galdu ez daitezkan (Karmeloren idazkera bera errespetatuko dot): “*Sekulako arrera ona* izan eban gure eleizetan liburu barri onek (Eguneroko MEZA). Euki be, Bizkaiko Eleizeak onen antzeko liburu baten premiña itzela eukan, ARGI DONEA laburregi ta estuegi zalako bere premiñentzat, eta ORIXErena, ostera, illunegia bizkaitarrantzat bere nafar-usaineko euskera landuan. KEREXETak, ostera, ondo artuta eukotson neurri egokia Bizkaiko euskereari, AZKUE ta ALTUBE maisu nausi zituala. 5000 aletik gora argitaratu, eta dan-danak urte bete barru salduta edo zabalduta egozan. Egilearen izen onari berea emonez esan daigun *liburu barriaren zabaltzaile* aspertu eziña be bera izan zala, Bizkaiko eleizarik geienetan bere “ume” barria aurkeztuz. Zenbat kilometro egin zituan ara ta

ona, zelako txerea egiten eutsen errietako abadeak, gasoliñatan zenbat eralgi eban, ori Kerexetak berak baiño ezin esan. Bere nekeak dirutan sari andirik artu ez baeben ere, bere abade-biotzak betiko poz sakona izan begi sari edertzat, liburu orrek urte askotan ainbeste mesede egin eutsalako Bizkaiko Eleizeari”. [...] “Esan daigun Kerexetak bere liburua euskeratu ebanean iñongo iñok ez ekiala etorkizun barri orren barririk. Kontzilioa iragarrita bai, baiña batu barik egoan artean. *Eta leenengo baimenak eta aldaketak eldu ziranean, ondo baiño obeto etorri jakun Kerexetaren liburua gure eleizetan.* Olan, esaterako, irakurgaiak (orduakoak, ez gaurko barriak) erriko izkuntzaz egiteko baimena etorri zanean, Bizkaiko Eleizeak erreztuta eukan bidea: *Kerexetaren itzulpena erabilteko baimena emon eban eta kitto* (Boletín Oficial del Obispado de Bilbao, n.173, Enero de 1965, p. 41. [Neure oharra]). Domeka ta jaiegunetako irakurgaiak ainbat urtetan entzun izan ditu gure erri kristiñauak Kerexetaren euskera zeatz, garbi, errikoian; santuen mezetakoak eta astegunetakoak oraindiño luzaroagoan”. [...] “*Mezeak aldaketa asko artu ditu arrezkero: egituran, irakurgaietan, otoitzetan, oikuneetan...* Au olan dala, KEREXETAREN EGUNEROKO MEZA be, bere antzeko beste liburu guztiak lez, baztertuta geratu jaku. Baiña esan daigun, testu barriak eta liburu barriak argitaratuta gero be, gure arteko abade batek baiño geiagok jarraitu izan dauala meza-liburu zaar ori, bere izki txiki ta guzti, erabilten, orren euskerea argiagoa, samurragoa, bertokoagoa egiten jakolako edo, euskera orretara belarria eginda eukalako edo...”. [...] “*Ganera, au be esan bearra dago: gure eleiz gizon askok eta askok, euren gaiak lantzean, euskerea bera eta inguruko euskalduna ondo gogotan izan dituezala.* Au da, euskaltzale sutsuak izan dirala. *Ainbat liburutako itzaurreak orren lekuko:* asi AXULAREN GEROTIK eta jarraitu, esate baterako, AITA KARDABERAZ, ARBELBIDE, AZKUEren itzaurreetatik, eta eldu gaitez gure



KEREXETAk bere liburu oni jarritako ITZAURRE-ANTZERA deritxonari. Leenengo orri lauretxuan onelako meza-liburu-
ruen garrantzia aitatzen deusku, Aita Santuaren testu ta guzti:
“Txalogarri dira benetan, Eukaristi-Oparian bat egitea kris-
tau-erriari errazago ta onurakorrago izan dakion, erriaren es-
kuetan “Meza-liburu Erromatarra” egokiro jarten alegiñak
egiten dabezanak; orrela, eliztar zintzoak, abadeagaz alkartu-
rik, Elizaren itz eta asmo berberakaz otoi egin dagien” [Pio

XII.a Aita Santuaren “Mediator Dei” Entziklikatik hartuta]. Baiña ganerako guztian bere euskal biotzaren kezka azaltzen deuskuz, argi ta garbi:

- indar barri batek eraginda datorrela, gure Bizkaiko erriak euki dauan utsune bat beteteko;
- mundu zabalean bizkaieraz itz egiten daben guztiai eskiñi nai deusela liburu barria;
- garbikeriatik eta euskera mordoilotik iges eginda, berak bide bakarra, erdiko bidea artu dauala, “bestetara ekitea, gaur euskeraren kontra egitea uste” izanik;
- berben arazoari baiño indar geiago emoten deusela berak joskera jatorrari eta gramatika zuzenari: “gramatika da(lako) edozein izkuntzaren arima. Ez, ostera, edozelan asmatutako gramatikarik, erriaren izkera jatorra oiñarritzat daukan gramatika baiño;
- orduko erriaren egoerea begi-biotzen aurrean dauko gure itzultzaileak: “zoritxarrez, erritarrik geientsuenak ez dabela sekula santan gramatikarik artu eskuetan, baiña joskera jatorra ez dabela galdu...” adierazten dauanean. Argi dago Karmelok txostentxua idatzi ebanean Kerexetak oraindino EUSKAL BIBLIA (Bilbao 1976) euskeratu barik eukana, osterantzean ezin eikean Karmelok aitatu barik itzi bere lantxu honetan, Kerexeta eleiz idazle lez aztertzerakoan. Nortzuk parte hartu eben “Eguneroko Meza” liburua egiteko? Kerexetak berak jarri eban argi eta garbi liburuaren azken orrialdean, gehigarrian: “ Eguneroko Meza” liburu au egiteko eskuartu dabenak:

Egille: Kerexeta´tar Jaime ta Aita Onaindia.

Gertatzaille: Kerexeta´tar Jaime.

Marrazlari: Gallastegi´tar L.

Irarruts-zuzentzaille: Gallastegi´tar Karmen.

Diru-laguntzaile: Bizkai´ko seme jator batzuk.

Arduradun eta jabe: Kerexeta´tar Jaime.

Irarkola: Bilbo´ko “Gráficas Ellakuria” ta “Gráficas Loroño”.

4.2. Irakurgai-Liburuak (Bilbao 1972)

Kontzilio ostean eleizbarruti guztietako ordezkariak osoturiko taldea sortu zan. Talde hau izan da Liturgiarako itzulpen guztien arduradun (ik. Lontzo Zugazaga, “*Euskal Herriko eleizearen jokabidea itzulpen arloan*” 119-146 orr. in “Euskalkia eta Administrazioa VI. Jardunaldiak”, Mendebalde Kultur Alkartea. Bilbao 2002). Eta hor egindako lanaren ostean, guk Irakurgai-Liburu barriak eratu genduzan bizkaieraz 1971 eta 1972ko urteetarako.

- Jaiegunetako Irakurgaiak C Urtea (1971): Abendu eta Gabonaldia; Garizuma eta Pazkoaldia; Urtean Zehar. Foileto forman, orriak josita. [Urte honetan argitaratu genduan “Mezaren Egunerokoa”, Donostia 1971].
- Irakurgai-Liburu I (A Urtea) Igandeak eta Jaiegunak. Bilbaoko Elizbarrutia 1972.
- Irakurgai-Liburu II (B Urtea) Igandeak eta Jaiegunak. Bilbaoko Elizbarrutia 1972.

Irakurgai-Liburu honeek argitaratzean, A zikloa liburu formatoan, Bilbaoko Eleizbarrutian (1972), sarrera bat idatzi zan: “Mezatako Irakurgai-Liburu” izan zan bere izenburua; eta sarrera hori garrantzitsua danez, hemen jasoko dodaz hango azalpen batzuk. *Zergaitik Irakurgai-Liburu hau?* [Bertako idazkera errespetatzen dot]

“*Elizak Mezatako irakurgai barriak eskeintzen deuskuz, Vaticanoko Eliz-batzar nagusiaren eskariei erantzunez*”. Vaticanoko Batzarrak agindu dau: “Elizkizunetan Liburu Santuen irakurtaldi geiago, leku geiagotatik artuak eta egokiagoak sar-

tu beitez”. Batez bere, Mezatan, “Jainkoaren berbea janaritzat artzeko maia fededunak orniduago izan dagien, Liburu Santuetako ondasunak ugariago zabaldu bekiez, erriari, urte jakin batzuen barruan, Liburu orrekin zatirik mamitsuenak irakurten jakozala”. “Ori agintzean, Elizak ederto baiño ez dau egin. Egiteko ederra, izan bere, elizkizunetan Jaunaren berbea irakurri, entzun, auznartu ta azaltzea”. *“Liburu au Eliz-batzararren aginduok betetan dator.* Erromako Liturgia barriztetako arazoa artu dauan Batzordeak eratuta, emen ditugu irakurgai barriak. Iru sailetan datoz: leenengo sailean, igande ta jai aundienetarakoak; onein geigarri, gero, astegunetakoak izango ditugu; eta, azkenez, irugarren sailean, Santuen egunetarakoak, Sakramentuakaz batera emoteko mezetarako, deboziñozkoe-tarako, ta beste edozein bear-izanetarakoak”. *“Igande ta jai egun aundietan, iru irakurgai sartzen dira: leenengoa,* Testamentu Zaarretik artua; *bigarrena,* Apostoluena (Epistoletatik edo Apokalisi-Liburutik artua), eta *irugarrena,* Ebanjelioetatik. Olantxe jarten da agirian Testamentu bien eta gure salbazio-ño jazoera osoaren batasuna, eta Kristo dogula, bere Pazko-misterioan ospaturik, danaren giltzarri ta elburu. Orixe erakutsi bear dau gero katekesi edo itzaldiak bere, Elizan antxiña baten egin oi zan lez”. “Jaunaren esanetatik geiago eskeintzearren, irakurgaiok iru emonalditan, iru urtetan, sartu dira”. *Iru irakurgaiok zer lokarri dauke alkarregaz?* Geienetan, gaiaren batasunak lotzen ditu; beste batzuetan, liburu bat artu ta urrengorik urrengora irakurri, besterik ez da egiten”. *“Alkarregaz lokarririk ederrena dauke, Testamentu Zaarreko jazoera ta irakatsiak Barrikoak argitu edo zelanbait barruan artzen dituanean...* Batez bere, Testamentu Zaarreko irakurgaiak dauke, Meza berean, Ebanjelioan irakurten danagaz antzik geien”. *“Gaiaren aldetik, batasuna aurkitzen da, batez bere, Abenduko, Garizumako ta Pazko-aldiko irakurgaietan.* Urte barruko beste igandetakoak ez dabe ain batera jotzen; sailean, urrengorik urrengo, artzen dira eurotan Epistola ta



Ebanjelioa; baiña emen bere, Testamentu Zaarreko irakurgaia ta Ebanjelioa gai baten inguruan dabiltz”. “Oitura zarrari jarraituz, eta gaiak alan eskatzen daualako, Liburu batzuk urteko aro bat edo besterako gelditu dira.... Luze-laburrean erdi-bidera jo da... Arimen onerako, ulergatxak diran zati batzuk ez dira sartu; baiña ez, gaxtasun ori entzuleak naiko ez-jakitetik, edo arimen arduradunak naiko ez ikasitik datorrenean. Elizan betiko oitura izan da olango zatitxoren bat edozeiñi ez irakurtea; baiña orduan bere, aal dala, Liburua Santuetako egiak moztu barik, edo arein mami ta gunari kalterik egin barik”.

Eta bertan agertzen da baita Irakurgai-Liburu horreen helburua be: “Esan danetik argi geldituko da liburu onen elburua zein dan: kristiñau-erriaren onerako egiña dago, liturgia goza-

tsuago egiteko, mezan parte artzetik onura ohea atara dagian. Berau gertau ta argitaratzeko, mundu guztiko jakitunak, Liburu Santuetan, arimazaintzan, kristiñau-irakaskintzan eta Liturgian aituak diran askok, egin dabe lan. Bertotik Jainkoaren berbea irakurri edo entzunaz, eta elizgizonen agoz argituz, kristiñau-erriak ondasun eta fruturik ederrenak atarako alditu, Elizak uste ta nai dauan legez”. Eta jarraian letra txikiz jartzen dauan oharra kontuan hartu beharrekoa da. Hauxe dino: *“Euskeraz argitaratzen dan Irakurgai-Liburu au, Euskalerriko Liturgi-Itzultzaile taldeak gurean jarri dau. Bizkairako bearbearrezko diran aldaketa batzuk egin ondoren, Bilbaoko Eliz barrutiko Liturgi-batzordeak argitaratzen dau. Uste dogunez, emendik urte batzuetara, itzulpen au barriro aldatu bearra izango da. Orregaitik, argitaratze au “ad interim” da”*.

“Domeka eta Jaiegunetako Irakurgai-Liburu” honeek nortzuk egin ebezan ere gogoratu behar dogu. Karmelo Etxenagusiak *“IRAKURGAIK”* liburuaren aurkezpenean (Larrea-Zorrotza 1989ko apirilaren 19an) hauxe esan euskun: *“Orain arte erabili doguzan Irakurgaiak (Domeketakoak), Aita Lino Akesolok egokitu zituan Bizkairako, eta badaukez K. Etxenagusia- ren eta Pio Zarraberen ikutu txiki batzuk be”*. Aita Lino Akesolok berak be adierazo eban 1987ko martian, Julen Urkizagaz egindako alkarrizketa baten: *“Liturgi-irakasle nintzalako, egin ninduen Bilboko eleizbarrutian, Liturgia barriztu zanean, Liturgibatzerdeko, eta euskal-liturgiaren arduradun”* (Idazlan guztiak I, 230 or.). *“Bizkaiko batzordean neuk egin neban, alan esateko, lan guztia. Gero Eleiz-barrutien arteko Batzordean beste guztiekaz batera egin neban an erabagi zan lan metodoaz; bakotxari emoten jakon lana guztien artean aztertu eta zuzendu. Olantxe euskeratuta dagoz Meza Liburu andia, eta iru urterako irakurgaiak eta aste-egunetakoak”* (Idazlan guztiak I, 231 or.).

(Karmelok aitatu dauan Pio Zarrabe horixe izan ei zan 1971 urtean *“Mezaren Egunerokoa”* dotorea Donostian argita-

ratu ebana). Domeka eta Jaiegunetako Irakurgaiak liburuetan agertzen dan euskera zoragarria da. Hori bai bizkaiera! esateko modukoa. Bizkaiera jatorra, aberatsa eta bete-betea. Beste alde batetik, hau be autortu beharrekoa da, ez da jatorrizko testuagazko hain fidela. Askatasun gehiegitxuz jokatu eban horretan, eta, nire ustez, gehiegitxu itzuli eban gure Linok.

4.3. IRAKURGAIK Liburua (Bilbao 1988. XXVII-1090 orrialde; 302-242 mm.) [Donostian 1978an argitaratu eben]

Bitxikeria bat aitatu behar dot Liburu lodi hau aztertu aurretik. Gipuzkoarrek 1978ko urtean argitaratu eben IRAKURGAIK liburua. Guk urte horreetan Kerexetarenagaz ospatzen genduzan Mezak. Eurek, ostera, ez euken herriak ulertzeko moduko itzulpenik, eta prisaz prestatu eben liburuaren argitalpena, guztion artean aurretiaz egindako itzulpenaz baliatuz. Gurean beste hamar urte pasatu ziran bizkaierara egokitu aurretik. [Eta orrialdetxo batzuk idatzi genduzan liburua bizkaieratu behar eben abade guztiei emoteko, erispide berberaz jokatu egien zeregina betetzean. "IRAKURGAIK" liburua bizkaieratzeko lagungarri: I.- Jokabide nagusiak. II.- Ortografia. III.- Deklinabidea. IV.- Aditza. V.- Atzizkiak. VI.- Iztegia. Lagungarri hori be ez daukat osorik; orrialderen batzuk aldendu egin jataz. Hiztegia Atik hasi eta Zraino joango zan, eta nik "beraz" hitzeraino bakarrik daukat].

Liburu honek be AURKEZPENA deritxon sarrera bat dauka. Eta bertan agertzen diran ideia nagusiak jaso gura dodaz.


- Jainkoaren berbeari aparteko garrantzia emoten jako gure liturgi-ospakizunetan. Eta ez da batere arritze-koa...
- Idazki Santu guztiek Jainkoaren Seme dan Nazaret-eko Jesusen barri emoten deuskue...
- Liturgi-ospakizunak bere osotasunean gaurkotu egiten dau etenbarik Jesusen oroipen historikoa kristau alkar-

tean, eta oroipen onek, beti ber-bera izanik, badau al-
dian aldiko eta lekuan lekuko orokortasuna...

- Baina Eleizeari dagokio, Jainkoagandik artutako ber-
bea eta Liburu Santuan jasota dagoana gaurko fededu-
nei emotea... apostoluakandiko Tradizinoari iraupe-
nean eustea...
- Vaticano-ko II. Kontzilioak erabagi bezala, liturgi-ospa-
kizunetan erabilli bearreko bibli-irakurgai guztien bil-
duma emoten dauan euskal argitalpen au gure sinis-
menaren autormen bat da...
- Eginkizun ederra be bai: gure kultur balioakanako
leialtasunean, [gizon-emakume, herrialde, hizkuntza,
kultura, aldian aldiko eta lekuan lekuko...] Jesu Kristo-
ren Barri Onaren balioak adierazoteko erantzukizuna
emon jakun guztiontzat...
- Eskerrak Euskalerriko Liturgi Batzordeari (sic) senide
diran elizbarrutien arteko alkar-lanean egiña (nik daki-
dala, Euskal Herriko Liturgi-itzulpen Talde ofiziala zan
egoana, harako 1967an Iruñean Erromako Liturgi-Ba-
tzorde Nagusiko idazkari zan A. Bugninigaz alkartu za-
na). Lan luzea eta astuna izan dabe. Ziur gagoz serbi-
tzu bikaiña egingo dauala gure kristau alkarteetan.
Nortzuk izan dira IRAKURGAIK liburu honen egi-
leak? "Beste liturgi itzulpen guztiak lez, au be elizba-
rruti arteko talde batek itzuli eban euskerara. Talde
onetan euskal elizbarruti guztietako ordezkariak egin
dabe lan, Manuel Lekuona buru zala. Taldeak egin-
dako irakurgaietatik zatirik beiñena (domeka ta jaiegu-
netakoa) bizkaieraz argitaratuta euki dogu, (hutsunea
dago originalean: 1972 ipiniz –neuk bete dot hutsu-
nea-) iru liburutan: A, B eta C (au, zatika; besteak,
osorik, urte baktxerakoa bere liburuan). Donostia,
Iruñe eta Gasteizko elizbarrutietarako liburu lodikote

bakar baten argitaratu ziran irakurgaiak (1978an –data neuk gehitua-): ez domeka ta jaiegunetakoak, Eukaristiaren barruan edozein elizkizunetan erabili bear diran guzti-guztiak baiño. Bizkaitarrok orain argitaratu dogun liburua orixe berori da, gure elizbarrutirako bear danez egokituta” (Karmelo Etxenagusiak, IRAKURGAIK liburuaren Aurkezpenean esana, Larrea-Zornotza, 1989-04-19an).

IRAKURGAIK liburu honen garrantziaz jaubetuta, “Aurkezpen” moduko bat egitea erabagi genduan eleizbarrutian. LARREA-ZORNOTZAn izan zan aurkezpen hori 1989ko apirilaren 19an. Otoitzaldiaz emon geuntsan hasiera goiz osoko



batzarrari. Eta jarraian lau komunikazino aurkeztu genduzan Karmelo Etxenagusia Eleizbarrutiko Bikario Nagusiak, Antonio Linaza VI. Lurraldeko Bikarioak, Jose Mari Rementería V. Lurraldeko Bikarioak eta neuk (Lorentzo Zugazaga). Berbal-ditxuak ardura handiz jarraitu ebazan han batu zan abade talde ederrak. Txaloak ere jo ebezan komunikazinoen ostean. Hona hemen komunikazinoetan erabilitako gaiak: 1. *Jainkoaren Berbea, Eleiza ebanjelizatua eta Jainkoaren Berbea Liturgian* (Lontzok); 2. *Erantzun-Salmoa eta Aleluia* (Antoniok); 3. *Liburua zelan egin dan eta nortzuk egin daben* (Karmelok); 4. *Liburuan zer datorren, zelan eratuta dagoan eta zelan erabili* (Jose Marik). (Ikusi Lorentzo Zugazaga “IRAKURGAIK Liburuaren Aurkezpena” KARMEL 1989-2, Jorrraila-Ekaina 189 Zenbakia, 69-74 orr.). Nortzuk izan ziran liburu hau bizkaieraz eskeintzeko parte hartu ebenak? Hemen ere K. Etxenagusiaren argibidea daukagu: “Orain argitaratu dan liburu lodia (1988) bizkaieratzeko askoren laguntza eskatu zan: P. Puxana, J.B. Gallastegi, J.F. Garitaonandia, J.F. Zamakona, J.J. Lejarazu izan ziran leenengo lana egin ebena(k), baktzak Bibliako zati batzuk egin zituala. Salmoak, oso-osoan, L. Zugazagak egokitu zituan. Dan-danari batasuna eta azken eskua L. Zugazagak eta K. Etxenagusiak emon deutsoe, eta eurok egindako utsak J.M. Rementeríaren begi zorrotzak zuzendu ditu, irarkolara eroan eta osteko ardurak ere leporatuz” (Karmelo Etxenagusiak, IRAKURGAIK liburuaren aurkezpenean, Larrea-Zornotza, 1989-04-19an). Zer esan liburu honetako euskerearen gainean? Nire eretxiz gehiegi lotua dago oinarrizko, guztion artean egindako, gipuzkera osotuko testuagaz. Horretan bizkaierak galdu egiten dau. Guk inoiz aitatu dogun bizkaieraren orioa falta dau. Dana dala, euskera onean dagoala autortu behar dot. Beste alde batetik, badau ezinbestezko beste akats bat bere. Bizkaierazko hau askoren artean egina izan zanez, hainbat desbardintasun somatzen dira, eta benetako bateratze baten fal-

ta igartzen jako. Karmelok eta nik dana berridatzi genduanean, ahalegindu ginan zeozer bateratzen, baina goian aitatu dodazan bizkaieratzaileen lana errespetatu genduan batik bat.

4.4. Azken bertsinoa (Inprimatze bidean)

Gorago, 4.2aren amaieran esanda egoana: “*Uste dogunez, emendik urte batzuetara, itzulpen au barriro aldatu bearra izango da. Orregaitik, argitaratze au “ad interim” da*”,

egia bihurtu jaku eta azken bertsinoa behingoan (laster) eskuratu ahal izango dogu, zorionez. Bertsino barria bideratze-ko baegoan beste arrazoi bat bere. 2001ean, martiaren 28an promulgatu eban Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen disziplinarako Kongregazioak “*Liturgiam authenticam*” Instrukzioa/Irakaspena. “*Erromatar liturgiako liburuak argitaratzean herri-hizkuntzen erabileraz Irakaspena*” deritxo. Bertan zehazten da zein prozedura erabili Erromako Liturgiako testuak ama-hizkuntzetara itzultzerakoan, *Sacrosanctum Concilium* konstituzinoaren haritik.

- Erreferente nagusia: Elizen arteko BIBLIA (1994). Kontzilioak, Vatikanoko II.k, adierazota eukan: “Baina Jainkoaren hitzak garai guztietan egon behar duenez gero, Eliza ama-arduraz saiatzen da itzulpen egoki eta zuzenak egin daitezen hizkuntza ezberdinetara, batez ere Liburu Santuen jatorrizko testuetatik. Itzulpen horiek, egokiera denean eta Eliz agintarien oniritziaz senide banatuekin elkarlanean egiten badira, kristau guztiek erabili ahal izango dituzte” (DV 22). Eta EaBk baldintza biak betetzen ditu: jatorrizko testuetatik itzuli, eta senide banatuekin elkarlanean egin. (Gogoan izan taldekideak: Iñaki Mendiguren eta Joan Mari Olaiola. Eta ezin ahaztu Mintegi eta zuzendaritza-lanetan ibilitako Jan de Ward, Ignacio Mendoza eta José Luis Andavert).

- Proklamazinorako, entzunaz batera ulertzekoa eta errez norbereganatzekoa!
- Euskaltzaindiaren arauak aintzat hartuz eta jarraituz. [Orain artekoak ez dabe kontuan izan hori, ez Altarako Liburuan ez eta Irakurgaien Liburuan. Euskal elizbarrutioi askotxu kostatu jaku eguneratzea! Askoren ustez bazan ordua!]. Atzerakuntza hau ulertzeko asmoz, esan beharra dago beste hau bere: Eleizeak ez dauka hizkuntzaren eta kulturaren izenean bere eginkizun nagusia arriskuan jartzetik. Eleizaren jokabidea *dialektikoa* izan dala agertu geinke. Maite dau euskeraren batasuna (preminazkoa) baina, aldi berean, argi ikusten izan dau euskalkien arteko urruntasuna eta herriaren zati handi baten egoera makal eta pobrea alfabetatzeari dagokionean. Horregaitik, itzulpen arloan euskal herriko eleizeak euskerari buruz izan dauan jokabidea batasunaren dinamikan sartu geinke (?), nahiz eta aldi berean ezinbestezko ikusi dauan pedagogia egoki baten beharrezana, eleizeari bere eginkizun pastoralak jartzen deutsozan lehenengo mailako eskakizun eta helburuak gogoan izanik. Horra hor, oinarrizko itzulpen bakarra hiru eratarata argitaratzearen arrazoia. Izan bere, 1967ko urtean, udagoienean, Euskal Herriko Liturgi-itzulpen taldeko batzuk Iruñean egin eben batzarra, gorago aitatu dodanez, Erromako Liturgia-Batzorde Nagusiko idazkari zan A. Bugninigaz. Euskeraren egoera eta liturgiarako hortik sortzen ziran zailtasunak aztertu ebezan. Eta batzar horren ondorioz, hurrengo hau erabagi zan: “Egunero erabili ohi diran zatietan ahalik eta itzulpen batasun handiena lortzen ahalegintzea. Irakurgaietan eta otoitzetan, ostera, euskerari buruz herriaren egoera kontuan harturik, askatasun handiagoz jokatzea, hiru argitalpen onartuz: Baionarakoa, Bilborakoa eta gainontzeko eleizbarrutieta-

rakoa”. Eleizaren ardura nagusia, harako “Orixe”k autortu ebanaren bidetik joan da: “Ez da eder, beintzat, gizonen izkuntzagatik, Jainkoarena illun uztea” (*Urte Guziko Meza-Bezperak* liburuaren sarreran). Helburu komunikatiboa hizkuntzan beti beharrezkoa bada, Salbazino-mezua eskeintzerakoan ezinbestezkoa eta behinena bihurtzen da. Egia da Eleizak askatasun osoa behar daukala bere *hizkuntz politika* erabagitzeko eta egoki ikusten dauan hizkera erabiltzeko, bere erabakiak ebanjelizatzearen ikuspuntutik hartzen dituan bitartean. Halan bere, argi eta garbi autortzen dot motel ibili gareala, eta Euskaltzaindiaren arauak aintzat hartuz Liturgiarako gure Liburuak egokitzeko pausua berandu emon dogula. Erromako Meza Libururako egokitu dan bertsino hau nortzuk egin daben? Begira!

Aspaldiko kontuak dira (guk geure lana amaitutzat emon genduan 2009ko azaroaren 23an), baina neuk esan barik, Dionisio Amundaraineri lagako deusat berbea, berak esan deigun nortzuk parte hartu genduan urteetako ekintza horretan (1999-2009): “Neurri handiagoan edo txikiagoan, lagunok hartu genian parte, hasiera hartan: Amundarain Dionisio (Gipuzkoa), Andiazabal Pierre (Lapurdi), Apezetxea Joan (Nafarroa), Arrieta Jesus Mari (Gipuzkoa), Elejalde Jesus Mari (Aramaio), Etxenagusia Karmelo (Bilboko gotzain-laguna), Etxezarreta Eustasio (Gipuzkoa), Irizar Ramon (Gipuzkoa), Lekuona Joan Mari (Gipuzkoa), Rementeria Jose Mari (Bizkaia), Zugazaga Lorentzo (Bizkaia). Halere, esan dezadan lan funtsa sei lagunek burutu dutela, besteena gutxietsi gabe (batez ere, Elejalde eta Apezetxea): Amundarain, Arrieta, Etxezarreta, Irizar, Rementeria eta Zugazaga” (Dionisio Amundarain, “*Zertan da Meza Liburu Berria*”, lagun bati erantzuna, Lazkao, 2012-08-28, San Agustinen egunean (sic)). Bertsino barri honek Elizen arteko Biblia (EaB) dauka erreferente modura. Horrek esan gura dau, alde batetik, *jatorrizko testuagazko abalik eta fidel-*

tasun zehatzena jagoten ahalegindu garala (hebreera eta grekoa kontuan izanik). Eta horrez gainera, EaB-k *eukan helburu komunikatiboa sakonago eta zabalago hazurmamintzen eta gauzatzen ahalegindu garala*. Onuragarri deritxot helburu komunikatiboaz han esaten gendua hemen jasotzea: “Helburu zehatz honek (helburu komunikatiboa) eragin dio itzultzaile-taldeari, traduktologiaren aldetik, joera jakin bat hartzera, Bibliaren itzulpengintzan, munduan zehar, jadanik aski errotua dagoen joera hartzera: baliokidetasun dinamikoa, funtzionala. Nolabait esateko, baliokidetasun formala ez (ez behintzat nagusiki), baizik hartzaileari edukia ahalik argien ematea izan du taldeak gogoan; hain zuzen ere, irakurle arruntak mezua jaso ahal izateko apaizaren edo artzainaren edo adituaren beharrik izan ez dezan, neurri handi batean bederen. Ez, beraz, hitza hitzaren truk, egitura egituraren truk..., baizik hitzaren muina, egituraren muina... era batera ala bestera nola emango ibili da, buru-belarri, itzultzaile-taldea” (ik “Elizen arteko Biblia”. Aurkezpena).

- *Helburu hori aintzat hartu, azpimarratu, areagotu eta nagusitu egin da azken bertsino honetan, liturgiarako, Erromako Meza Libururako egin dogunean*. Hauxe izango dau bigarren erreferentea gure “Testamentu Barria” liburuak. Izan bere, liturgiarako itzulpenak baldintza bi izan behar ditu kontuan: erabileraren testuingurua, eta jasotzaile zehatz eta berarizkoarena. Ezinbestezkoa da oinarrizko testuagazko fideltasuna batetik, eta beste aldetik, hartzaileagazko leialtasuna, beronen hizkuntz-baliabide, beronen kultur gaitasuna eta kultur testuinguru berezia aintzat hartzen dauan leialtasuna. Liturgiako testuingurura egokitzeak bigarren leialtasun hau jagotera behartzen gaitu berariaz. Izan bere, Biblia liturgian ez da eskritura, ez da testu; berba aldarrikatua da huts-hutsean, testu diskurtso edo esanaldi bihurtua. *Liturgian Biblia-testuak galdu egiten*

dau bere testu-izatea, berbazko aldarrikapen bihurtzeko: batek irakurtzen dau eta alkarteak entzun. Testu aldarrikatua belarrietara doa, eta ez daukagu begien aurrean, atzera barriro hartzeko, berrikusteko, hausnartzeko. Testu idatzia espaziala da, egonkorra, aldi berean daukat aurrez aurre. Berbazko hitza, ostera, al-dibatekoa da, hurrenkerakoa eta ibiltaria; bere soinuek airean irauten daben beste irauten dau, ez gehiago. Horrek esan gura dau berehalakoa izango dala testuaren ulermena eta harrera. *Itzulpen liturgikoak ez dauka iruzkinetara edo ohar argigarrietara jotzerik. Testuak berak argitu behar dau dana, aldarrikapen buts-butsean. Itzulpen liturgikoak bidezko dan erreztasuna lortu behar dau.* Entzunaz beste barik, entzuleak bereganatzeko aukera izan behar dau. Horretarako, ezinbestezko egiten jakoz baldintza batzuk itzulpen liturgikoari:

- *Irakurterreztasuna.* Ahozko komunikazioaren muga-bako xehetasun eta bereizgarriak oso garrantzitsuak dira (etenaldiak, azpimarrak, alkarrizketaren edo kontakizunaren intonazioak, poesiako edo himno taiuko pasarteen erritmoa, tarteak...). *Puntuazioak* ere guk sarri uste dogun baino garrantzi handiagoa dauka; ohikoa baino hainbat ugariagoa beharko dau izan, irakurleak Jainkoaren Hitza herriaren aurrean taiuz eta ganoraz aldarrikatu dagian.
- *Ulerterreztasuna.* Honek baliokidetasun dinamiko-funtzionala aplikatzea eskatzen dau, bai esplizitazioaz, bai eta signifikaduaren argibideaz. Jatorrizko testuan behingoan ulertzekoa zan adierazpideak, holantxe izan beharko dau oihartzuna lortzen dauan testuinguru barrian ere.

- *Liturgiarako itzulpenak baztertu egin beharko dau biztegi gatxa edota goi-mailakoa; eta alboratu egingo ditu ulermena eta bat-bateko ulermena larri oztopatzan daberen esaldi luze eta korapilatsuak. Danok ondortxu dakigunez, esaldi labur eta xumez egindako testua errezago da irakurtzeko eta ulertzeko, esaldi luze eta korapilatsuz egindakoa baino.*
- *Eta Liburu Santuetan sarri atal luze eta korapilatsuak dagozan ezkerrean, ezinbestezko egiten da testu zatia desagitea, eta paragrafo luzea esaldi laburrago eta xumeagoz berregitea.* Biblia-liburu askotan liturgiarako itzulpenak berregituratze-eginkizuna eskatzen dau, azaleko egitura formala sakon eraldatzea. San Pauloren epistoletan ikusi geinke esan barri dodanaren adibide garbi ugari. Azken baten, berariazko hartzaileari Biblia-testua ulergarriago eta eskuragarriago egiteko, hartzaileaganako gertukoago egiteko, badira itzulpen-prozedura praktikoko batzuk (nahiz eta beti ez diran goitik baimenduak eta onartuak izaten). Hemen gogoratu geinkez, adibidez:
 - Esplizitazio-printzipioa.
 - Esanahia argitzearen printzipioa.
 - Kontzentratua zabaltzearen printzipioa.
 - Zatitze-printzipioa.
 - Erlazino- edo lotura-printzipioa (ik Lontzo Zugazaga, “*Bibliaren itzulpenetik liturgiarako itzulpena*”, Uzta-
ro 2017-101, 59-84 or., 82 or. berariaz).

-----oo0oo-----

Bibliari buruz esan dogun horixe onartu dogu “Testamentu Barria” (Bilbao 2018) liburuaren itzulpenerako egin dogun bidean, goian aitatu doguzan erispideak kontuan izanik. Jokabide bera izan genduan “Jesu Kristoren Ebanjelioa” (Bilbao 2015) eratu eta argitaratu genduan bere. Irakurri dagigun Testamentu Barria sarri, arduraz eta buru-bihotzak zabaldua eta, batez bere, irakurri dagiguzan Testamentu Barriko 27 liburuak tradizio biziaren barruan, eleiz-alkartearen gune eta altzo oparoaren barruan. “Testamentu Barria” liburuaren gure bertsino hau Liturgiarako eskeintzeko, ahalegin handiak egin doguz, gure eleiztarrek liturgi-ospakizunetan Jaunaren Berbea ondo ulertu eta eurenganatu ahal izan dagien. Esker onez arduratu gaitezana bertsino hau erabiltzen, zabalitzen eta askorentzat onuragarri izan daiten.

Lontzo Zugazaga

Bilbo Eleizbarrutiko Euskera Zerbitzua
Zuzendaria